

**ESKOLAKO OHARRAK****TRANSPATIOA**

Duela egun batzuk, hainbat familia auzolanean aritu ziren patioa eraldatzen. Lerro hauetatik eskerrak eman nahi dizkizuegu gure eskola hobetzen lanean aritu zineten guztioi.

BEKAK

Urtero bezala, zuen seme-alabentzat jantokiko eta materialerako beka eskatzeko aukera izango duzue. Epea urriak 9tik azaroak 9ra arte irekita egongo da. Kontuan izan online egitea aholkatzen dela, dena den eskolan bertan tramitatu daitezke; honetarako Idazkaritzan hitzordua telefonoz hartzea beharrezkoa izango da.

**BEKAK
BECAS
GRANTS**

ESKOLAKO EMAIL KORPORATIBO FAMILIARRAK

Eskolako digitalizazio prozesuan aurrera goaz, horregatik eskolako familia bakoitzarentzat eskolako helbide elektronikoa sortu dugu. Komunikazio kanal ofizial gisa erabiliko dugu eta eskolako informazio guztia eta irakasleekin harremana aipaturiko bide honetatik egiteko aukera izango du eskola komunitate osoak. Familia bakoitzaren helbide elektronikoa ahalik eta azkarren aktibatu eta pasahitza aldatzea eskatzen dizuegu, mesedez. Helbide elektronikoa martxan jartzeko, gmail.com orriaren bidez egin behar da.

AVISOS DE LA ESCUELA**TRANSPATIO**

Hace algunos días, varias familias estuvieron realizando trabajo comunitario dentro del proyecto Transpatio. Desde estas líneas, queremos agradecer el trabajo realizado en la mejora de la escuela. Eskerrik asko.

BECAS

Como cada año, existe la posibilidad de pedir beca tanto para comedor como para material. El plazo para solicitar las becas está abierto desde el 9 de octubre hasta el 9 de noviembre. Tened en cuenta que se prioriza realizar dicha petición online, aunque también se puede realizar en la misma escuela; para poder hacerlo desde la escuela, es necesario concertar cita por teléfono.

**BEKAK
BECAS
GRANTS**

EMAIL CORPORATIVO FAMILIAR DE LA ESCUELA

El proceso de digitalización de la escuela sigue adelante, y por ello hemos creado una dirección de correo electrónico para cada familia, el cual será utilizado como canal oficial de comunicación de nuestra comunidad escolar. Desde estas líneas pedimos que se active dicho canal oficial con la mayor celeridad posible, por favor. Para poner el correo en marcha, se debe entrar por gmail.com

ORDEZKARIEN ORGANO GORENA

Aurtengoan, gure eskolako Ordezkarien Organo Gorenaren zati bat berritu behar dugu. Hori dela eta, gurasoren batek parte hartu nahiko balu, eskolako Zuzendaritzara hurbil dadila eta izen eman dezala. Guk informazio hau, eskolako Guraso Elkarteari jakinaraziko genioke. Bestela, elizaldekogurasoelkarte@gmail.com helbide elektronikora ere idatzi dezakezue, eta izen eman. Eskerrik asko zuen parte hartzeagatik.

COVID 19

Lerro hauetatik gogorarazi nahi dizuegu, Hezkuntza Sailak urriak 2an publiko egin zuen dokumentuan zer jasotzen den: "ez dute ikastetxera joan behar COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak, ikasle, irakasle zein bestelako langileak izan, ez eta COVID-19ren diagnostikoa jaso ondoren isolatuta daudenek edo etxeko berrogeialdian daudenek ere, COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituen pertsona batekin harreman estua izateagatik." Denon artean eskola babes dezagun. Bestalde, gogorarazi nahi dizuegu, eguerdian etxean bazkaltzen duten ikasleentzat, eskola eremuko arratsaldeetako sarrera, ahal den neurrian 14:40etan izan behar duela, egoera ahalik eta ongien eutsi eta kudeatu ahal izateko. Jakinarazi nahi dugu, konfinatzen diren Lehen Hezkuntzako ikasleek, aukera izango dutela, beharra izanez gero, eskolako ordenagailu bat eramateko. Honetarako, Zuzendaritzarekin harremanetan jarri eta bertan jasota geratuko den orria bete beharko da. Azkenik, beste herri batetik, inork (aita, ama, aitona, amona, zaintzaile,...) gure eskolara etortzeko baimena beharko balu, eskolako Zuzendaritzan eska dezala. Orri hau egoki betetzeko, izen, abizen eta NAN zenbakia beharrezkoak dira.

ESKOLA ORDUZ KANPOKOAK

Momentu hauetan, COVID19a dela eta eskola orduz kanpoko ekintzak (judo, euskal dantza, eskola kirola,...) ez dira egiten. Eskola komunitatearen asmoa, ekintza hauek berriz martxan jartzea da, **Guraso Elkarteak** honela erabaki eta egoerak hala ahalbideratzen duenean. Sentitzen ditugu eragozpenak.

ABARAXKA LUDOTEKA

Datorren urriak 31ean, Abaraxka Ludotekan Gau Beltza ospatuko dute. COVID19ak sortzen duen egoera berezia dela eta, ostegun eta ostiralean, arratsaldeko 16:30etatik 19:00etara, ludotekan bertan, sarrerak hartu beharko dira, plaza mugatuak izango baitira.

Informazio gehiago:
www.elizaldekogurasoelkarte.blogspot.com.es eta

ÓRGANO MÁXIMO DE REPRESENTANTES

Este curso toca renovar parte del OMR. En caso de que algún tutor/a legal quiera participar, puede dar su nombre en Dirección y desde aquí informaremos la Asociación de Madres y Padres. Otra de las opciones es escribir un correo electrónico a: elizaldekogurasoelkarte@gmail.com. Muchas gracias por vuestra participación.

COVID 19

Queremos recordar que el Departamento de Educación, publicó lo siguiente el día 2 de octubre:

"no deben acudir al centro educativo aquellas personas que tengan síntomas compatibles con el COVID19, sean parte del alumnado, profesorado o parte del personal, así como personas que se encuentren en aislamiento por diagnóstico de COVID19 o en período de cuarentena domiciliar por haber mantenido un contacto estrecho con alguna persona con síntomas compatibles con o diagnosticada con COVID19." Debemos proteger la escuela entre todos y todas. Por último recordad, que el recinto escolar se abre a las 14:40 para el alumnado que come en casa. Queremos informar, que el alumnado de Educación Primaria que esté confinado en casa, tiene la posibilidad de llevarse un ordenador a casa si fuese necesario. Para ello, contactad con el equipo directivo de la escuela. Finalmente, si algún padre, madre, abuelo, cuidador,... necesitara el justificante para poder desplazarse desde algún pueblo de alrededor, también debe ponerse en contacto con el equipo directivo para que firmen dicho permiso. Para ello son necesarios los nombres, apellidos y el número del DNI.

ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES

En estos momentos, debido al virus COVID19, no se realizan actividades extraescolares en la escuela (judo, deporte escolar, euskal dantza,...). La idea de la Comunidad Escolar es reanudar dicha actividad, cuando la situación lo permita y **la Asociación de Madres y Padres** así lo decida. Sentimos las molestias.

LUDOTECA ABARAXKA

El próximo día 31 de octubre, celebrarán la noche negra. Debido a la excepcionalidad del COVID19 las plazas serán reducidas y se podrán obtener este jueves y este viernes en la ludoteca entre las 16:30 y las 19:00 horas.

Más información en: www.elizalde.eus y

www.elizaldekogurasoelkarte.blogspot.com.es

